



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

HOBETO EZAGUTU ARAUDIA HOBETO BETETZEKO

**LEHIA DEFENDATZEKO ARAUDIA
BETETZEKO PROGRAMA
EGITEKO GIDA**

BILBO 2017

Mintza gaitezen lehiaz. Lehia defendatzeaz.

Gida honek informazioa emango digu eta egoerak eta printzipioak ulertzen lagunduko digu. Patxadaz irakurtzea merezi du, ikasteko eta ikuspegi berri batekin abiatzeko lehiaren bidetik.

Gida honi esker hobeto ezagutuko dugu araudia, hobeto betetzeko.

EZAGUTZEA	4
Zer da lehia? Printzipio orokorrak.....	5
Nori egiten dio mesede lehiak?	6
Zer gertatzen da lehiarik ez badago?	7
Lehiaren kultura. Bidearen hasiera	7
Zein dira lehiaren kulturaren abantailak?	8
Zertan egiten digu mesede lehiak?	8
Zein jokabide daude debekatuta?	9
Zein araudi aplikatzen da?	10
Zer dira Lehiaren Agintaritzak?	11
BETETZEA	12
Betetzen ikastea.....	13
Zergatik da garrantzitsua betetzea?	13
Badu eraginik lehiak Enpresaburuen Elkarteetan edo Elkarte Profesionaletan?	14
Zer da Betetze Programa?	16
Betetze Programaren Dekalogoia.....	17
Zer abantaila ditu Betetze Programak?.....	19
Nola jokatu besteek betetzen ez dutenean?	19
Zein dira ez betetzearen ondorioak?	20
Betetze Programen garrantzia	21
Erreferentziak	22

EZAGUTZEA

“Ezagutza boterea da.” Francis Bacon

“Ezagutzak libre egingo gaitu.” Sokrates

Zer da lehia? Printzipio orokorrak

Lehia librea **merkatu-ekonomiaren** oinarri-oinarrizko printzipioa da, eta esan nahi du ekonomiako operadoreek askatasun osoa dutela ondasunak eta zerbitzuak eskaintzeko eta berdin bezeroek ere erosi nahi dutena aukeratzeko.

Zenbaitetan ekonomiako operadoreak elkarrekin bat hartuta jokatzeko tentazioan erortzen dira, bezerorik ez galtzeko, baldintza onuragarri eta erakargarriak mantendu ezin badituzte.

Lehia librea defendatzea funtsezko printzipioa da merkatu-ekonomian, eta aitortzen berezia ematen zaio demokrazia modernoaren ordenamendu juridikoetan.

Beraz, merkatuetan nahitaez errespetatu behar dira joko-arau batzuk **guztien** ongiaren eta kontsumitzaileen onerako.

Lehiak baliabideak efizientziaz erabiltzera eramaten du, eta horregatik da **hazkunderako alde aurretiko baldintza**.

Merkatuetako lehia **pizgarri ona da eskaintzaileentzat kostuak murrizten saiatzeko**, eta kontsumitzaileei erraztasun handiagoa ematen die ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten konpainien artean konparatzeko.

Lehiak **produktibitatean ere badu eragina**, enpresa efizienteei merkatuan sartzeko atea irekitzen dielako eta efizienteak ez direnak merkatutik kanpora uzten dituelako.

Lehiak **berrikuntzara bultzatzen du**, eta horrek eramaten du produktuak eta zerbitzuak lehiakideenetatik desberdintzera.

Nori egiten dio mesede lehiak?

Pertsona eta kolektibo guztiei:

Administrazioa heritarrak kontsumitzaileak
enpresaburuak ikasleak profesionalak
langileak irakasleak
langabeak elkarteetako kideak pentsiodunak...

Eta zertan gara berdinak?

Metroan eta autobusean ibiltzen gara

Supermerkatuan erosten dugu

Eskola eta unibertsitateetan ikasten dugu

Enpresa txiki eta handietan lan egiten dugu

Antolakunde enpresarial edo profesionaletako kide gara

Lan bila gabiltza

Oporrak kontratatzen ditugu

Zinemara eta teatrorra joaten gara

Aipatutako egoera horietan denetan, eta lan-munduan, ikastegietan edo aisialdian topa dezakegun beste edozeinetan, lehia librearen printzipioen eraginpean egongo gara.

Zer gertatzen da lehiarik ez badago?

Ekonomiako operadoreek elkarren arteko lehian jarduten ez dutenean, [gizarte osoari egiten diote kalte](#), hobetzeko pizgarria moteldu egiten delako.

Hobetzeko zer premia izan lezake lehiakiderik gabeko enpresa edo antolakunde batek, merkatu osoa bere mende baldin badauka?

Zertarako jaitsi prezioak bezeroek berdin-berdin erosiko badute prezio garestiagoan ere?

Horrelako egoeretan, lehiakortasuna frenatuta geratzen da eta kontsumitzailea desabantailan [ezin duelako aukeratu](#).

Horregatik, funtsezkoa da enpresen arteko lehia bultzatuko duen araudi bat edukitzea. Merkatuen funtzionamendu lehiakorrek dakarren onura abiapuntu hartuta, lehiari buruzko araudiak debekatu egiten ditu lehia ezabatzeraz edo mugatzeraz eramaten duten jokabideak.

Lehiaren kultura. Bidearen hasiera

Azter ditzagun hobeto lehiaren printzipioak eta baliabideak. Badakigu ezin dela maitatu ezagutzen ez dena, eta ezagutzen duguna baloratzeko joera dugula: gure hiria, gure enpresa, gure zaletasunak.

Arduraz eta lehia librearen printzipioen arabera jokatzeko, [identifikatzen ikasi behar dugu jokabide bat zein egoeratan izan daitekeen lehiaren kontrakoa](#).

Batzuetan, funtzionamendu bat hain egoten da gure eguneroko bizitzan txertatuta eze normala iruditzen zaigu, nahastu egiten ditugu ohikoa eta zuzena, eta ez gara ohartzen erabiltzaileei eta kontsumitzaileei egiten zaien kalteaz.

Horregatik, funtsezkoa da lehiaren kultura eta dituen abantailak ezagutzea eta jendartearen zabaltzea. Garrantzitsua da lan didaktiko eta efikaza egitea lehiari buruz informatzeko eskolan eta unibertsitatean.

Zenbaitetan, informazio jakinen bat birformulatu ere egin beharko da, gizartearen txertatuta dagoen "deformazioaren" bat zuzentzeko, [lehia murrizten duten praktika batzuk oso-oso errotuta daudelako, eta, normaltzat jotzen ditugunez, kuestionatu ere egiten ez ditugulako](#).

Zein dira lehiaren kulturaren abantailak?

Enpresen artean, administrazioan eta antolakundeetan benetako lehia egoteak efizientzia handiagoa ekartzen du, eta hori kontsumitzaileei eta erabiltzaileei ere heltzen zaie: produktu edo zerbitzuen dibertsifikazioa prezio merkeagoetan eta, ondorioz, gizarte osoaren ongizate handiagoa.

Gizarte osoak ezagutu eta barneratu ahala merkatuetan lehiaren printzipioak aplikatzeak ekartzen dituen onurak, hobeto baloratuko dira lehiaren garrantzia eta abantailak, eta lehiaren kultura izatea lortuko da enpresa eta antolakundeetan.

Horrela, ondorio logikoa izango da estamentu guztietan inplementatzea lehiaren gaineko araudia urratzea eragozteko behar diren neurriak. Konklusio gisa esan dezakegu: [zenbat eta lehiaren kultura handiagoa, orduan eta arau-hauste gutxiago.](#)

Zertan egiten digu mesede lehiak?

Lehia librearen printzipioak dira ekonomia baten lehiakortasunaren giltzarria.

Benetako lehia dagoen ingurune batean, enpresak eta antolakundeak saiatzen dira lehiakideak baino hobekak izaten eta, bezeroak berenganatzeko, beren produktuen [prezioak jaisten dituzte eta kalitatea hobetu](#), aukera zabalagoa izan dezagun eta hobeto aukeratu ahal izan dezagun.

Era horretan, kontsumitzaileek prezio hobekak lortzen ditugu, produktu-gama zabalagoa eta kalitate hobeko [produktuak aukeran](#).

Lehiaren politika bat ezartzea eta [hazkunde ekonomikoa](#) elkarren eskutik doazela erakutsi dute hainbat estudiok. Lehiaren eta aberastasunaren arteko lotura ikusten da lehia handiagoak eskualde edo herrialde baten aberastasunean eragin positiboa izaten delako eta, gainera, lehiaren politika garapen-politikarako funtsezko osagaia delako.

Administrazio publikoen ikuspegitik begiratuta, erregulazio garden eta efizientea jarduera ekonomikoaren pizgarri da eta ekonomiaren hazkundearen bultzagarri eta, azken finean, herritarren oparotasuna ekartzen du.

Zein jokabide daude debekatuta?

Garbi ikusi behar dugu zein diren lehiaren araudia urratzen duten jokabideak eta, beraz, lege bidez debekatu beharrekoak.

Nabarmenenak dira:

- **Kartelak edo enpresen arteko legez kontrako akordioak**, lehiaren funtzionamendu normala faltsutzen dutenak. Horien artean sartzen dira **merkatuak elkarren artean banatzea**, erosteko edo saltzeko **prezioak finkatzea**, edo **lehiakideekin akordio batzuk egitea** lehia-merkatuak dakartzan arriskuak eta ziurgabetasunak saihesteko.

Era horretako akordioek oso eragin negatiboa izaten dute lehiaren gainean eta kontsumitzaileei eta bezeroei ere kalte egiten digute, ezaugarri eta prezio desberdinetako eta hornitzaile desberdinen produktuen artean askatasunez aukeratu ahal izatea mugatzen edo eragozten dutelako.

Lehia murrizten dutenez, horrelako jokabideak bereziki larritzat jotzen eta pertsegitzen dituzte lehiaren agintariek, eta oso isun handiak ezartzera ere iristen dira batzuetan.

- **Legez kontrako informazio-trukea**, esate baterako, lehiakideen artean elkarri informazio xehea pasatzea prezio-aurreikuspenei buruz, edo banaketa-akordioei buruz, edo estrategikoa izan litekeen bestelako edozein informazio, horrek merkatuetako lehia murriztera eraman lezakeelako.
- **Nagusitasunezko posizioaz abusatzea**; hori gertatzen da enpresa edo antolakunde batek merkatu batean negozio-portzentaje handia duenean eta bere nagusitasuna baliatzen duenean lehia eragozteko.

Ez dago debekatuta nagusitasuna izatea, baizik eta nagusitasunaz abusatzea. Abusuzko jokabideak dira, adibidez, prezio oso altuak finkatzea, edo oso baxuak, lehiakideei kalte egiteko, edo bezeroen artean justifikazio gabeko diskriminazioak egitea. Berrero ere, herritarren kalterako.

- **Enpresak kontzentratzeko eragiketa batzuk, hala nola fusioak eta eskuratzeak** egiten direnean, lehiaren agintaritzak gainbegiratu behar ditu, lehiaren kontrako jokabiderik izan ez dadin.

Zein araudi aplikatzen da?

Duen garrantzia dela-eta, gai hau Europa mailan eta estatu mailan arautzen da.

- **Europar Batasuneko lehiaren arauak** zuzenean aplikatzen dira Batasuneko estatu guztietan, legeria nazionalean sartu beharrik gabe.

Adibidez, **Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 119. artikulua** ezartzen du estatu kideen politika ekonomikoak beti errespetatuko duela merkatu irekiko eta lehia libreko ekonomiaren printzipioa.

EBFTren 101. eta 102. artikuluek debekatu egiten dituzte lehia murrizteko praktikak, saltzeko edo erosteko prezioak finkatzea eta merkatuak elkarren artean banatzea. Nagusitasunezko posizioaz abusatzea ere debekatuta dago.

EBren araudi hori zuzenean betearaz dezakete bai Europako Batzordeak, bai Lehiaren Agintaritzak nazionales.

- **Estatuko araudia** uztailaren 3ko **15/2007 Legean, Lehia Defendatzekoan (LDL)** jasotzen da, eta jokabide debekatuak 1., 2. eta 3. artikuluetan zehazten dira.

Espainiako Konstituzioak, 38. artikuluan, enpresa-askatasuna aitortzen du merkatu-ekonomiaren eremuan, eta ezartzen du botere publikoek bermatu eta babesten dutela askatasun hori baliatzea eta produktibitatearen defentsa, eta, halaber, merkatuetan benetako lehia izatea.

- **Euskal Autonomia Erkidegoan**, otsailaren 2ko **1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak**, ezartzen du goian aipatutako arauak aplikatzeko erakunde-bilbadura.

Zer dira Lehiaren Agintaritzak?

Estatu mailan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala, ekainaren 4ko 3/2013 Legeak sortua, arduratzen da lehiaren araudia betetzen dela zaintzeaz.

Autonomia-erkidegoen mailan, Lehia Defendatzeko Agintaritzak sortu dira merkatuen funtzionamendu lehiakorra bermatzeko eta lehiaren onura gizarte osoari helduko zaiola segurtatzeko.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoan merkatuko lehia librearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea.

Hona Agintaritzaren eskumen nagusiak:

- Organo aholku-emailea izatea.
- Lehiari eragiten dioten araugintzako egitasmoen buruzko irizpena ematea.
- Lehiaren defentsaren inguruko prozedurak instruitzea eta ebaztea.
- Sustapen-lanak.
- Lege-mailatik beherako egintzak edo xedapenak aurkaratzea eta arbitraje-lanak egitea.

Lehiaren Euskal Agintaritzak lan handia egiten du lehia babesteko politikei zabalkundea emateko, merkatuei buruzko azterlanen eta argitalpenen bidez, egon litezkeen hutsuneak sakon aztertuz eta konponbideak proposatuz.

Txosten sektorialak ere egiten ditu, hobekuntzak proposatzeko, eta ikastaroak, jardunaldiak eta hitzaldiak antolatzen ditu gaiari buruzko prestakuntza eta zabalkundea sustatzeko eta eztabaida eta debaterako foro gisa.

Informazio gehiago: www.competencia.euskadi.eus

BETETZEA

*“Nire askatasuna legeak egiten uzten
didana egiteko eskubidea da”.*

Montesquieu

Betetzen ikastea

Lehiaren arauak betetzeko obligazioa saihetsezina da. Eta horrek gizarteko estamentu guztien konpromisoa eskatzen du, lehiaren arauen garrantzia aitortu eta kontuan hartzeko.

Hasteko, ezagutu egin behar da, gero bete ahal izateko. Hobeto ezagutu, hobeto betetzeko.

Betetzeko konpromisoak berarekin dakar **ikastea**, bide bat markatzea, eta, zenbaitetan, baita egindako bidea desegitea ere. Gelditu egin behar da, begirada berriarekin begiratu, jokabide batek lehia librearen errespetatzen duen ala ez bereizteko.

Bestalde, lehia murrizten duten egoerak identifikatzen ere ikasi beharko dugu, egoera horiek aldatu egin behar direla erabakitzeko.

Hurrengo urratsa lehiaren arauak betetzen lagunduko duten prozedurak eta kontrolak ezartzea izango da, edo, bestela, *sensu contrario*, lehiaren kontrako jokabiderik onartuko ez duten estrategiak ezartzea.

Zergatik da garrantzitsua betetzea?

Enpresa edo antolakunde bat jabetzen denean lehiaren arauak betetzearen garrantziaz, eta bere funtzionamendu-politikan argi eta garbi sartzen duenean,

- **Etika enpresarialaren** irudia indartzen ari da.
- **Posizionamendu proaktibo** bat hartzen ari da araudi hori betetzeko metodoetan.
- **Ez betetzearen kostua aurrezten ari da**, ez baita ahaztu behar oso handia izan litekeela.

Kontua ez da lehiaren araudia betetzen saiatzea, bete egin behar da, legez, eta ez betetzeak zehapen handiak ekartzen ditu.

Benetako konpromiso baterako lehenengo urrats garrantzitsua izango da lehiaren araudia betetzeko programa bat ezartzea, prestakuntzako neurriekin, kontrol-estragiekin eta arau-hausterik ez egiteko neurriekin.

Enpresetako langileen jokabideak enpresa bera lotesten du eta, beraz, zehapena ezarri ahal izango zaio, jokabide okerraren berri ez izan arren.

Horregatik, ezinbestekoa da langileei behar adinako prestakuntza ematea.

Enpresak modula lezake bere erantzukizuna, frogatzen badu eginahal guztia egin zuela langileei prestakuntza emateko eta legez kontrako jokabideak ezagutzen erakusteko.

Badu eraginik lehiak Enpresaburuen Elkarteetan edo Elkarte Profesionaletan?

Sektore bakoitzeko enpresak elkarte enpresarial eta profesionaletan bildu ohi dira, elkartekideen helburu komunak sustatzeko helburuarekin.

Era horretako elkarteek lan bikaina egiten dute beren bazkideen alde, baina lehiaren araudiak debekatutako jokabideetan erortzeko arriskua ere badute, lehiakideen arteko elkarlana sortzen lagundu dezaketelako.

Orain indarrean dagoen Lehia Defendatzeko Legearen arabera, enpresen ardura da beren buruaren autoebaluazia egitea, hitzartzen dituzten akordioen legezotasunari buruz. Beraz, oso komenigarria da elkarteek beren funtzionamendua aztertzea lehiaren araudiari dagokionez eta ahal den neurrian **Betetze Programak** abiatzea, ez-betetzerik edo legez kontrako jokabiderik gerta ez dadin.

a) Onartzen EZ diren jokabideak

Hasieran txikikeria bat ematen duen ekintza bat, esate baterako lehiakideen artean informazioa trukatea, legez kontrako informazio-trukea izan liteke, merkatuan lehiaren distortsio nabarmena eragin balezake.

lido horretatik, **lehiaren araudiak debekatu egiten du eta**, beraz, **legez kontrakoa da**, adibidez:

- Lehiakideekin adostea edo eztabaidatzea prezioei edo prezio-politikei buruzko edozer.
- Gehieneko eta gutxieneko prezioak, saltzeko edo erosteko baldintzak, irabazi-marjinak edo deskontuak finkatzea.
- Merkatuak elkarren artean banatzeko akordioak.
- Salmenta-bolumenari edo merkatu-kuotaren portzentajeari buruzko edozein eztabaida.
- Zonak esleitzeko edo merkatu geografiko jakin batean salmentak murrizteko akordioak.
- Produkzioa mugatzeko akordioak.
- Bezeroak edo bezero-kategoria batzuk esleitzeko lehiakideen arteko akordioak.

- Bezero jakin batzuei ez saltzeko konpromisoa, beste lehiakideak beste bezero batzuei ez saltzekotan.
- Kasu batzuetan, txostenak, datu-base estatistikoak edo antzekoak egitea ere izan liteke lehia-arauak urratuz prezioak finkatzeko, merkatuak elkarren artean banatzeko edo bestelako baldintza komertzial batzuk ezartzeko akordio baten zati.
- Boikota ere debekatu egiten du lehiaren araudiak.

b) Onartzen diren jokabideak

Hala ere, onartzen da datu agregatuei buruzko informazioa elkarrekin trukatzeari, enpresa identifikatzeko aukerarik ematen ez badute, datu horiek ez daukatelako eraginik benetako lehiaren gainean.

Urrezko araua da prezioei edo prezio-politikei buruzko datuak truka daitezkeela, zaharrak badira eta duten antzinasunagatik ezin badute eraginik izan lehiakideen politika komertzialean.

Horregatik, benetan garrantzitsua da, eta lehentasunezko helburu gisa finkatu behar da, lehiaren araudiari behar duen arreta ematea eta ez betetzeak ekar litzakeen ondorioak baloratzea, ezar litezkeen diru-zehapen handiak kontuan izanda.

Legeak berak ezartzen du zein baldintzatan ezingo diren debekatu akordio batzuk (EBren kategorien arabera Salbuespen Erregelamenduak, EBFren 101.3 artikulua eta LDLren 1.3, 4 eta 5. artikulua).

c) Formak zaindu beharra

Elkarte profesional edo enpresarial bateko kide izateko, lehiaren araudia betetzearen aldetik begiratuta, **betekizun** batzuk ezartzen dira.

Lehenik eta behin, **elkarteak formalki eratuta egon behar du** eta kide izateko eta erabakiak hartzeko sistemak argi ezarrita izan behar ditu.

Bilerak egiteko, lehia babeste aldera eta gardentasunaren eta kontrolaren onerako, **baldintza** batzuk bete behar dira, hala nola deialdia idatziz egitea, gai-zerrenda sartuta, eta bilera bakoitzaren akta egitea, bertan tratatutako gaiak jasota uzteko.

Kontu handiz ibili behar da tratatuko diren gaiekin eta inoiz ere ez da onartu behar prezioen joerak, irabazi-marjinak, produkzio-ahalmenak, kostuak, estrategia komertzialak edo marketinekoak edo legez kontrako informazio-truketzat jo daitezkeen bestelako gairik eztabaidatzea.

Legearen kontrakoak izan litezkeen gaiak tratatzen diren bilera batean egonez gero, isilik egoteak ez du libratzen arau-hausteak ekar litzakeen zehapenetik. Aktan jasoarazi behar da gai horiek tratatzeari uko egiten zaiola, eta bileratik alde egin. Bestela, arau-hausteren bat atzematen bada, bileran zeudenak partaidetzat joko dira.

Zer da Betetze Programa?

Betetze Programak edo *Compliance Programme* esaten zaienak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira sektore batzuetako praktika enpresarialean, zehazki, lehiaren defentsaren arloan.

Lehiaren arauetara buruzko esparru bat eratzea da xedea, enpresetan edo antolakundeetan ezarritako prozedura-multzo baten bidez, alderdi inplikatuak garbi ezagutu dezaten lehiaren araudia, jakin dezaten betetzen dela bermatzen eta araudiaren arabera jokatzeko.

Horixe da hain zuzen ere **Betetze** edo *Compliance* programa: gobernu korporatibo onari lotutako arau-multzo bat, gardentasuna eta gauzak "ongi egitea" ekartzen duena.

Programa horiek inplementa daitezke dela enpresetan, dela elkarteetan edo enpresa-antolakundeetan, bakoitzaren ezaugarriak eta kideen premiei egokitzeko egin beharreko aldaketekin.

Garrantzia are handiagoa da kontuan hartzen badugu lehia defendatzeko araudia urratzeak ondorio juridiko eta ekonomiko latzak izan ditzakeela urratzaileentzat.

Araudia betetzeko konpromisoa kudeaketa-organoek hartu behar dute, edozein programak, efikaza izango bada, goi-zuzendaritzaren konpromiso eta sostengu ezbaierik gabea behar duelako, eta funtsezkoa delako betetzearen kultura enpresaren edo antolakundearen alde guztietara helarazteko. [Konpromisoaren kultura sustatzea da kontua.](#)

Lehiari buruzko prestakuntza ezinbestekoa da, eta enpresa edo antolakunde bakoitzaren ezaugarrietara egokitu beharko da.

Bestalde, barne-kontrolako prozedura batzuk ezarri beharko dira, eta araudia betetzen ez denean salatzeako prozedura bat, egileen kontra ezarriko diren diziiplina-neurriekin.

Betetze Programaren Dekalogo

Lehia-arauen *Compliance* edo Betetze Programa bat ezartzeak esan nahi du aldez aurretik enpresa edo antolakundea mentalizatuta dagoela lehiaren araudia ezagutu eta bete beharraz.

Programa efikaz bat ezarri nahi bada, benetan betetzeko bokazioarekin, hori baita azken finean helburua, urrats hauek egin beharko dira:

1. Eskuliburua prestatu

Idatziz jarri, argi eta txukun ordenatuta eta modu didaktikoan, zein den aplikatu beharreko lehia-araudia eta zein diren prozedura egokiak enpresa edo antolakunde horretarako zehazki. Egoera konkretu bakoitzerako neurria egindako ikuspegi bat garatu behar da.

2. Lehiaren aldeko protokoloak implementatu

Lehiaren araudia azaldu, argi eta erraz ulertzeko moduan, eta nola implementatuko den antolakundean, langileen prestakuntzari arreta berezia eskainiz. Berezi azpimarratu, sektore batean ohikoak izan arren lehia-arauekin talka egin dezaketen jokabideak, eta, ondorioz, zehapena ekar dezaketenak.

3. Lehiaren kontrako jokabideak eta arriskuak identifikatu

Zer egin daitezkeen eta zer ez. Arriskuak identifikatu, eta argi esplikatu zergatik diren kaltegarri kontsumitzaileentzat edo enpresentzat eta nola eragotzi edo neutraliza daitezkeen.

4. Zuzendaritzaren benetako partaidetza eta inplikazioa ezarri

Ezinbestekoa da Zuzendaritza eta kudeaketa-organoak inplikatzea programa betetzeko. Programa urratzen den bakoitzean zorrotz erantzuten bada, argi transmitituko zaie langileei etikoa ez den jokabiderik ez dela inola ere onartuko.

5. Betetze Programa berrikusi

Aldizka egiaztatu beharko da programa egokitzen zaiola benetako praktikari eta efikaza dela lehia urratzen duten jokabideak detektatzeko eta kontrolatzeko. Behar izanez gero, neurriak zuzendu.

6. Betetzen ez denean hartuko diren neurriak eta salatze prozedura

Ez betetzearen kausak exhaustiboki aztertu: zergatik eta nola gertatu den hutsegitea. Nola eta zein bidetatik salatu. Langileek jakin egin behar dute gatazkaren bat sortzen denean norengana jo behar duten. Betetzen ez denean hartuko diren neurri zehatzak ezarri, bi aldetatik begiratuta: ez betetzeagatik ezarriko den zehapena, eta nola sendotu prozedurak berriro gerta ez dadin.

7. Ezarritako zehapenak aplikatu

Oso garrantzitsuak dira eremu honetan argitasuna eta segurtasuna, guztiek jakin dezaten alde zuzenetik lehiaren araudia eta ezarritako prozedurak ez betetzeak programan zehaztutako diziplina-neurriak eta zehapenak ekarriko dituela.

8. Programaren segimendua eta etengabeko prestakuntza

Langileen prestakuntza ezinbesteko kapitulua da betetzeak duen garrantziaz eta ez betetzeak ekar litzakeen zehapen larriez jabetu daitezkeen. Etengabe programatu behar dira eguneratzeko eta birziklatzeko ikastaroak, enpresa edo sektore bakoitzeko egoera konkrituak analizatzeko eta sortzen diren galdera edo kezkei erantzuteko.

9. Barneko eta kanpoko kontrolak eta auditoretzak

Barneko kontrol eta auditoretzei esker detekta daitezke enpresa barruko portaera irregularrak, eta egoera horiek birbideratzen saiatu. Kanpoko auditoretzekin ikusten da benetan egiten ari den *compliance*-a eta antolakundearen praktikak egokitzen zaizkion lehiaren araudiari.

Zer abantaila ditu Betetze Programak?

Enpresaren kultura etikoa sustatzea, xede bikoitzarekin: lehiaren araudia betetzeko benetako kultura bat bultzatzea eta ez betetzeagatik etor litezkeen zehapenak saihestea.

Lehiari buruzko informazio zehatza argi emateak segurtasuna ekartzen du, gogoeta egitera eta egoera aztertzea behartzen gaituelako. Arriskuak identifikatzen eta neurrira egindako ikuspegi bat planifikatzen laguntzen digu.

Lehiaren kontrako jokabide posibleak nola identifikatu adieraztea, eta eragozteko tresnak eta estrategiak eskaintzea. Betetze-programak edozein eremutan egin daitezke eta edozein mailatan, beti kontuan izanda zein sektoretan egiten diren eta norentzat.

Betetze-programen ondorioak onuragarriak dira, bai programa ezarri duen entitate edo enpresarentzat eta bai erabiltzaile eta kontsumitzaileentzat.

Berriro ere azpimarratu behar dugu betetzea ona dela, baina ona izateaz gain derrigorrekoa dela, legeak hala agintzen duelako. [Lehiaren araudia nahitaez bete beharrekoa da.](#)

Bestela esanda, *sensu contrario*, ez betetzeak zehapen-prozedura aplikatzea eta isun handiak ezartzea ekar lezake.

Nola jokatu besteek betetzen ez dutenean?

Zer gertatzen da lehiaren araudia ez dela betetzen ikusten dugunean? Enpresa edo antolakunde batek lehiaren printzipioak ez dituela betetzen uste duen edonork sala dezake egoera hori Lehiaren Agintaritzan.

Lehiaren kontrako jokabidea duen enpresarik ezagutzen badugu, Lehiaren Euskal Agintaritzara jo dezakegu gertaera salatzea. Oso erraza da, aski da webgunean dagoen inprimaki bat bete eta posta arruntez edo posta elektronikoz bidaltzea (Infocompetencia@avdc.eus).

Zein dira ez betetzearen ondorioak?

Zehapenak

Lehiaren araudia ez betetzeagatik ezartzen diren zehapenak oso handiak izan daitezke. Zehazki:

- **Isunak** munta handikoak izan daitezke, isuna jartzen den aurreko urteko ekitaldian enpresa arau-urratzaileak izandako negozio-bolumenaren % 10erainokoak.
- Negozio-bolumena zehaztu ezin bada, **baremo** bat aplikatuko da ez-betetzea arina, larria edo oso larria izan den kontuan izanda, eta **isuna 10 milioi eurokoa ere izan liteke**.
- Akordio debekatuarekin zerikusirik izan duten **legezko ordezkariak edo zuzendaritzakoek 60.000 euro arteko isunak** jasan ditzakete.
- **Debekatutako jarduera egiteari uzteko** agindua eta **hertsapen-isunak** jarduera bertan behera uzteko edo ebazpen edo erabaki bat betetzeko.

Adibide gisa, kartel batzuei azkeneko urteotan jarritako isun batzuk aipa ditzakegu:

- 2015ean Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak 171 milioi euroko isuna ezarri zien ibilgailuen banaketa eta komertzializazio sektoreko 21 konpainiari, kartel bat sortzeagatik eta informazio sentikorra partekatzeagatik.
- 2015ean era horretako praktikengatik 88 milioi euroko isuna esne-industriako 11 enpresako talde bati.
- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak 4,09 milioi euroko isuna ezarri zien 2016an urtearen azken aldera nazioarteko mudantzetan espezializatutako 15 enpresari, prezioak eta beste baldintza komertzial batzuk finkatzen zituen kartel bat eratzeagatik.
- Lehiaren Euskal Agintaritzak 18 milioi euro inguruko zehapena ezarri zien 2016an euskal eskola publikoetako 7 catering-enpresari, merkaturaren beren artean banatzeagatik.

Klementzia-programa

Klementzia-programa lehiaren araudia urratu duten enpresei isuna kentzea edo murriztea da, Lehiaren Agintaritzari informazioa eta dokumentazioa ematearen truke, arau-haustea deklaratzeko edo ikuskapena egiteko lagungarri.

Horrela, bada, **kartel bateko kideen artean**, kartela dagoela frogatzeko edo ikuskapen bat agintzeko froga-elementuak aurkezten dituen **lehenengo enpresa** isunetik salbuetsita geratuko da.

Gainera, egoera salatu duen enpresak bete-betean kooperatu beharko du prozeduran zehar, froga-elementurik ez ezabatzeaz eta karteleko partaide izateari uzteaz gain. Salbuespena emango zaio baldin eta Agintaritzak alde zuzenetik ez bazeukan nahikoa informazio edo froga-elementu.

Karteleko enpresa gehiago laguntzeko prest badaude eta klementzia-eskaera aurkezten badute, isuna murriztea lortuko dute baldin eta egiten duten ekarpenak balio erantsi garrantzitsua badauka Agintaritzak dagoeneko bere esku daukan informazioarekiko. Murrizketa isunaren % 20 eta % 50 bitartekoa izango da.

Betetze Programen Garrantzia

Pentsa dezakegu betetze-programa bat edukitzeak isuna murriztuko ote duen arau-hausteren bat izanez gero, baina, berez, ez da horrela: betetze-programa edukitzeak ez du eraginik Lehiaren Agintaritzak aurreikusitako zehapenean.

Hala ere, azken aldian **Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala** hasia da aitortzen programa horiek izan dezaketen garrantzia arau-hausteetan enpresen erantzukizuna ezabatzeko edo murrizteko eta adierazi du *positiboak direla enpresen barruan lehiaren arauak ezagutzea sustatzeko eta ez betetzea prebenitzeko eta eragozteko egiten diren ekintza guztiak*.

Europako Batzordeari dagokionez, gaur-gaurkoz, betetze-programa edukitzeak ez du isunetik libratzen araudia betetzen ez bada.

Dena dela, kontuan izan behar da, Lehiaren Agintaritzek zehapenak murrizteko edo ez murrizteko duten politika alde batera utzita, **Betetze-programak garrantzitsuak direla eta sustatu egin behar dela inplementatuta edukitzea**, ikusi dugun moduan, ukaezinak direlako abantailak, balio handiko prestakuntza ematen zaielako langile guztiei, bereziki goi-mailako postuetan dudenei, eta, halaber, kontzientziazteko eta lehia defendatzeko araudia balioan jartzeko bide egokia direlako.

Erreferentziak

<http://www.competencia.euskadi.eus>

<https://www.cnmc.es/> <http://ec.europa.eu/competition>

<http://ec.europa.eu/competition/antitrust/compliance>